

*Gida didaktikoa*

HAN ETA HEMENGO  
IPUINAK I

**URRETXINDORRA**

# URRETXINDORRA

## Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

**Bibliografia** 15.or.

**Egileak** 16.or.

## **GIDAREN AZALPENA:**

Ipuin hau, testu guztiak bezala, testu-sekuentzia bat da: narrazioa eta elkarrizketak tartekaturik daude. Deskripzioa irudiek egiten dute.

Testuaren batasuna galdu gabe, testu guztiei komunak zaizkien ezaugarriak aipatuko ditugu, eta horren inguruan landu daitekeena. Irakasle bakoitzak jakingo du zer eta noiz landu. Testuen ezaugarriak bata bestearen atzean aipa badaitezke ere, lana egiterakoan ez da hain erraza ezaugarri bakarra lantzea edota eskemari pausoz pauso jarraitzea. Lanari funtzionalitaterik handiena eman ahal izateko, komeni da proiektuaren forma ematea. Proiektua hauze litzateke: gelan ipuinak elkarri kontatzea, ondo pasatzeko. Aldi berean, hizkuntzazko ariketa zuzenduagoak antola daitezke.

## **HELBURUAK:**

- . Ordena kronologikoari jarraituz, fikziozko narrazioa zein errealitatean oinarritutakoa egitea, aditz-denbora egoki erabiliz.
- . Ekintzak, ordena kronologikoari jarraituz, ahoz kontatzen jakitea, irakaslearen laguntzaz.
- . Jarduera kontrolatuen bidez eta egoera kontestualizatueta, elkarrizketa jakin batzuen imitazioan parte hartzea.
- . Hiztegia eta esanahi berriak bereganatzea.

## **JARDUERAK:**

### **1.- Ahozko hizkuntza:**

Proiektua: Talde batek ipuina ikusiko du eta, besteei kontatzeko, paperez egindako siluetak erabiliko ditu.

### **FASEAK:**

a) Mezuaren planifikazioa:

Kontakizuna prestatzerakoan, lehendabiziko gauza GAIA zehaztea da. Orduan da ipuinaren HARI KRONOLOGIKOARI jarraitzeko eta IPUINAREN ATAL nagusiak zehazteko aukera. Hori egiten dugunean, KOHERENTZIAz arduratzen ari gara:

Gaiaren progresioa: ipuinak hari kronologikoari darraio.

Irakasleak haurrei galderak egingo dizkie, ipuina ordenan gogorarazteko.

Narrazioaren haria argi utzi dugunean, hondoa eta figura ongi bereizteko, aditz-denbora eta

aspektua ongi erabilarazten saiatuko gara. Hartara, haurrek kontaktzen dutena irakasleak errepikatuko du, osatzeko, edo galderak egingo dizkie, ilun geratu dena argitzeko.

Adibidez:

Zein zen enperadorearen arazoa?

Zergatik nahiago zuen benetako urretxindorra mekanikoa baino?

## SEMANTIKA:

Hainbat erregistroren esanahia gogoratu edo ziurtatu behar da: agiria, ez naiz batere makala!, lanpetuta, izenpetu, idazkaria, bitxigilea...

b) Testualizazioa: (Jarri mezuari hitz eta esapide zehatzak, eta eman AHOSKATZE eta INTONAZIO EGOKIA).

AHOTSAK: ondo zehaztuko ditugu narratzailea eta pertsonaiak, bai eta zer esan behar duten ere.

- Pertsonaien siluetak egin eta haurrek silueta bana hartutakoan, ipuinaren laburpena antzeztuko dute. Hartara, ikasle guztiek jakin behar dute zenbat pertsonaia diren eta zer esan behar duten. Ez ahaztu haur batek narratzailearen rola egin behar duela.

## KOHESIOA

Narratzailearen rola zehazterakoan, honako eduki hauek lantzeko aukera izango dugu:

Izenen kohesioa:

Subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura.

Objektuaren eta aditzaren arteko komunztadura.

Aditz kopulatiboen PARADIGMAK:

NOR, NOR-NORK, NOR-NORI, NOR-NORI-NORK.

Aditz kopulatiboak: hondoa eta figura. Aditz-denbora eta aspektua:

Denborazko antolatzaileak.

Aditzondoa eta deklinabideko markak: -n, -(r)ekin, -(r)i, -(r)a.

Ariketa kontrolatuak:

FUNTZIO jakin batzuetan zer hizkuntza erabil daitekeen irakasteko edo ikasitakoa praktikatzeko:

- **Jarduera:** Elkarrizketako zati honen imitazioa. Kexu bat ematea ("enperadoreak") eta kontra azaltzea ("ministroa"). Begirune handiko tratamendua.

IDAZKARIA: Maiestate,...

ENPERADOREA: (OFF) E? Mm, aa! (OFF) Bai, esan!

IDAZKARIA: Hona agiri hauek, jauna. Lehenbailehen izenpetu behar ditu berorren maiestateak. Premiazkoak dira eta.

ENPERADOREA: (AD LIB) Eta noiz ez zabilta ba zu presaka?! Ni beti nabil jo eta ke! Eta leher eginda nago legeak eta legeak izenpetzen! Hau ez da bizimodua! (AD LIB)

IDAZKARIA: Badakit, baina inperioa oso zabala da eta arazo asko daude.

ENPERADOREA: Arazoak! Arazoak! ... Jakizu... egunen batean lanari utziko diodala, eta hor konpon, Mari Anton! (AD LIB)

IDAZKARIAK: (AD LIB) Ez da ausartuko!

ENPERADOREA: Nola ezetz?! Oraintxe bertan alde egingo dut! Eta ez naiz berriro itzuliko! Horixe ezetz! (AD LIB)

IDAZKARIA: Ezin du hori egin! Burutik jota dago, ala?

ENPERADOREA: E? Ez! Oraindik burua sano daukat, baina ezin dut lan gehiago egin! Ezin dut! Agur! (AD LIB)

IDAZKARIA: (AD LIB) Baina, baina hori ezin liteke! Ezin du lana bukatu gabe utzi! Itzuli, mesedez!

ENPERADOREA: Tira... egon lasai. Paseo bat egitera baino ez noa. Eta berehala itzuliko naiz. Baina ez esan ezer. (AD LIB)

IDAZKARIA: Ondo da.

ENPERADOREA: (OFF) A! Eta hor duzu luma! Nahi baduzu, jarraitu horiek izenpetzen. Bestela lana pilatu egingo zait!

IDAZKARIA: (AD LIB) Falta nuena! Amona umetzea!

• **Jarduera:** Elkarrizketako zati honen imitazioa. Sorpresa bat ematea ("ministroek") eta azalpenak eskatzea, harridura azalduz ("enperadoreak").

2. ministroa.- (Jauregiko aretoan). Maiestate, opari bat dakarkizugu. Itxi begiak.

Enperadorea.- (Jakin-minez). Opari bat? Zer da?

1. ministroa.- Berehala jakingo duzu. Itxi begiak!

(Enperadoreak begiak estali ditu eskuekin, eta urretxindorraren abestia entzun du. Hots mekanikoa eta hotza gertatu zaio. Enperadorea geldirik geratu da. Eskuak begietatik kendu, eta galdezka hasi da).

Enperadorea.- (Kezkatuta). Zer gertatu zaio nire urretxindorrari? Non da?

1. ministroa.- Ezer ez, ez zaio ezer gertatu. Gertatzen da beste bat ekarri dizugula...

2. ministroa.- Maiestate handi batentzat hau egokiagoa dela iruditu zaigu, eta oparitzea erabaki dugu.

Enperadorea.- Eta bestea?

1. ministroa.- Bota egin dugu. Begira, maiestate, begira kuxidade hau!

2. ministroa.- Jauregi bikain honetan ezin da holakorik onartu. (Mahaiaren gainean, luma txikiak eta masusta-hondakinak daude). Maiestate, har ezazu gure oparia.

1. ministroa.- Bihotz-bihotzez eskaintzen dizugu, torizu!

• Elkarrizketako zati honen imitazioa: nahiak eta malenkonia adierazten.

Idazkaria.- Ene! Apurtu egin da! Orain zer egingo diot?

Enperadorea.- Ezer ez. Oraindik ez zara konturatu ez dudala gustuko?

Idazkaria.- Bestea nahiago zenuen, ezta?

Enperadorea.- Bai. Non ote da?

Idazkaria.- Ez dakit. Auskalo non den!

Enperadorea.- (Hasperenka). Ez dakit zer emango nukeen berriro entzuteagatik!

• Elkarrizketako zati honen imitazioa: Errieta egiten.

1. ministroa.- Zatoz, polit hori!

2. ministroa.- (Idazkariari). Zer da gehien gustatzen zaiona?

Idazkaria.- Nik dakidala, masustak oso gogokoak ditu.

Idazkaria.- (2. ministroari). Nik uste dut ez duela ezer nahi gurekin!

Haserre dagoela ematen du!

1. ministroa.- (Urretxindorrari). Barka iezaguzu, txori hori. Oso gaizki jokatu dugu zurekin. Hemendik aurrera, nahi duzunean etor zaitezke jauregira eta enperadore jaunarentzat abestu. Aditu duzu?

Idazkaria.- (Besoa luzatu dio, gainean jar dadin). Zatoz, polit hori! Goazen zure lagunarekin!

• Eztabaida talde txikian:

Enperadoreak ondo egin zuen lanari utzi zionean? Ministroek ondo egin zuten urretxindorra jauregitik botatzean?

## **AHOTSAK:**

- Irakasleak ipuina kontatuko die haurrei, pertsonaia batek dioena beste baten ahotan jarrita.
- Pertsonaia ezkutua: Irakasleak pertsonaia baten silueta ezkutatuko du. Haurrek nor den esan behar dute, irakasleak esaten duenaren arabera.

"Non ibiliko ote da nire urretxindor ederra?", "Maiestate, onartu gure oparia. Bihotz-bihotzez eskaintzen diogu. Berorrentzat da.", "Enperadorea malenkoniak jota zegoen, harik eta erabat gaixotu zen arte.", " ) Ez dakit zer emango nukeen berriro entzuteagatik."...

## **DEKLINABIDEA eta JUNTAGAILUAK:**

- Egin galderak: Enperadoreak non aurkitu zuen urretxindorra? Enperadorea burutik jota zegoen? Zergatik atsegin zuen urretxindorra? Nork egin behar zuen enperadorearen lana berak egiten ez zuenean? Enperadorearen ministroek zergatik ez zuten urretxindorra gogoko? Nori egin zioten txori mekanikoaren enkargua? ...
- Gezurrak kontatzen: Enperadorea alferra zen. Enperadoreak txori mekanikoa nahiago zuen. Enperadorearen ministroek urretxindorra hil zuten. Txori mekanikoa ikusi zuenean, enperadorea txundituta geratu zen. Urretxindora, itzuli zenean, jauregian geratu zen betiko.

**ADITZ-KOHESIOA:** figura, hondoa, denborazko antolatzaileak eta aditz-aspektua:

- Egin honelako galderak:

Enperadoreak noiz utzi zion lan egiteari?

Enperadoreak urretxindorra betidanik ezagutzen zuen, ala lan egiteari utzi zionean ezagutu zuen?

Idazkaria noiz hasi zen enperadorea burutik jota zegoela pentsatzen?

Ministroek noiz erabaki zuten txori mekanikoa egitea?

Enperadorea noiz geratu zen malenkoniak jota?

Noiz itzuli zitzaion poza eta lan egiteko gogoa?

## **2.- IDATZIZKO HIZKUNTZA:**

Proiektua: Ipuin-bilduma egitea.

Idatzi ipuina, marraztu, margotu eta jarri azala.

(Ipuinaren luzera ikasleen idazmenaren arabera izango da).

Idazten dakitenek zirriborroa egin dezatela, eta irakasleak zuzenduko die. Garbira pasatu ondoren, egin marrazkiak eta egin azala, izenburua jarrita.

Idazten ez dakitenentzat:

Ipuina idazteko, haurren diktaketan oinarritu gaitezke. Pasatu testu hori garbira eta eman fotokopia haurrei.

Bestela, honelako zerbait ematen ahal zaie, folioetan banatuta, marrazkia egin dezaten.

- Behin batean, Txinako enperadorea oso nekatuta zegoen, beti lanean ari zelako.
- Egun batean, lorategira irten zen deskantsatzera, eta urretxindor bat abesten ari zen han. Enperadoreari asko gustatu zitzaion, eta lagun handiak egin ziren.
- Urretxindorra egunero joaten zen enperadorea ikustera.
- Baina enperadorearen ministroek pentsatu zuten hobe izango zela urrezko urretxindor abeslari bat oparitzea, eta urretxindorra bota egin zuten.
- Enperadorea oso triste zegoen, urretxindorra berekin ez zegoelako.
- Azkenean, urrezko urretxindorra apurtu egin zen, eta benetakoa itzuli zen.
- Handik aurrera, adiskide izango ziren luzaroan, eta enperadorearen bizitza betiko aldatu zen.
- Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Derioko plazan.

Azala haurrek idatz dezakete.

Irakurtzen eta idazten hasteko, honelako ariketak egin daitezke:

- Emandako hitzen artean, aurkitu "urretxindorra", "oparia", "txoria", "jauregia", "luma", "tinta-ontzia", "masusta" hitzak.
- Emandako hitz baten bariazioen artean, bereizi eredu bezalakoa dena. "urretxindorra", "oparia", "txoria", "jauregia", "luma", "tinta-ontzia", "masusta".

Umetxindorra, urretxindorro, urrelindorra, urrelinforra, urretxodorra...

- Kopiatu honako hitz hauek eskuz, eta marraztu: "urretxindorra", "oparia", "txoria", "jauregia", "luma", "tinta-ontzia", "masusta".
- Honako hitzen artean, aurkitu berdintasunak: "urretxindorra", "oparia", "txoria", "jauregia", "luma", "tinta-ontzia", "masusta".
- Osatu hitza:

\_\_rr\_\_tx\_\_nd\_\_rr\_\_,

u\_\_ \_\_ e\_\_ \_\_ i\_\_ do\_\_ \_\_ a...

## 2.4 GIDOIA EDO BLOKEKAKO LABURPENA, DENBORA ZEHAZTUZ.

Kapitulu guztiak erlazionaturik daude, denen artean abentura bat osatzen dutelako.

Kapitulu baten egitura:

- Karatula: minutu bat.
- Narratzailea: 2/4 minutu.
- Kondaira: 12/16 minutu.
- Kredituak: minutu bat.

### Gidoi literarioa:

Hans Christian Andersen

(Itz.: Santi Brouard Aldamiz)

IZENBURUA: Urretxindorra.

NARRATZAILEA: Kaixo, neska-mutilok. Gaurko ipuina Txinan entzun nuen. Bai, oso urrun. ... Oso ipuin polita da, edo niri behintzat hala iruditzen zait. ... Ea zuen gustukoa ote den.

NARRATZAILEA: (OFF) Bazen behin enperadore bat. ...

ENPERADOREA: (AD LIB) ...

NARRATZAILEA: Eta, jakina, bere jauregian bizi zen.

ENPERADOREA: ... (AD LIB) ...

NARRATZAILEA: Bere lana erresumako legeak izenpetzea zen.

ENPERADOREA: ... (AD LIB) Hau nekea! Beti lanpetuta! (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Erabat nekatuta egoten zen beti. Ez zen zoriotsua. Oso kementsua zen eta lanari gogo handiz ekiten zion, ahalik eta ondoen egiteko. Lege zuzenak egiten saiatzen zen, guztiontzat berdinak. Lurralde guztietan bakea egon zedin nahi zuen, eta inperioa hain zen zabala, egunak lanean eman behar izaten baitzituen. Honenbestez, ez zuen lagunekin egoteko astirik eta horrek tristura handia eragiten zion.

ENPERADORA: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Zerbait egin behar zuela sumatzen zuen. Zerbaiten beharra zeukan, baina ez zekien zer izango ote zen, nola baztertuko ote zuen tristura hura. ... Triste zegoenez, lana gero eta polikiago egiten zuen eta, hori dela eta, egin beharrekoak pilatzen hasi zitzaizkion. Gero eta lan gehiago zeukan zain. Minutu bat bera ere ez zuen lasai egoteko. Eta horrela pasa ziren egunak, ... asteak, ... hilabeteak, ... Baina... egun batean...

ENPERADOREA: (AD LIB) ...

IDAZKARIA: Maiestate,...

ENPERADOREA: (OFF) E? Mm, aa! (OFF) Bai, esan!

IDAZKARIA: Hona agiri hauek, jauna. Lehenbailehen izenpetu behar ditu berorren maiestateak. Premiazkoak dira eta.

ENPERADOREA: (AD LIB) Eta noiz ez zabiltza ba zu presaka?! Ni beti nabil jo eta ke! Eta leher eginda nago legeak eta legeak izenpetzen! Hau ez da bizimodua! (AD LIB)

IDAZKARIA: Badakit. Baina inperioa oso zabala da eta arazo asko daude.

ENPERADOREA: Arazoak! Arazoak! ... Jakizu... egunen batean lanari utziko diodala, eta hor konpon, Mari Anton! (AD LIB)

IDAZKARIAK: (AD LIB) Ez da ausartuko!

ENPERADOREA: Nola ezetz?! Oraintxe bertan alde egingo dut! Eta ez naiz berriro itzuliko!  
Horixe ezetz! (AD LIB)

IDAZKARIA: Ezin du hori egin! Burutik jota dago, ala?

ENPERADOREA: E? Ez! Oraindik burua sano daukat, baina ezin dut lan gehiago egin! Ezin dut! Agur! (AD LIB)

IDAZKARIA: (AD LIB) Baina, baina hori ezin liteke! Ezin du lana bukatu gabe utzi! Itzuli, mesedez!

ENPERADOREA: Tira... egon lasai. Paseo bat egitera baino ez noa. Eta berehala itzuliko naiz. Baina ez esan ezer. (AD LIB)

IDAZKARIA: Ondo da.

ENPERADOREA: (OFF) A! Eta hor duzu luma! Nahi baduzu, jarraitu horiek izenpetzen. Bestela lana pilatu egingo zait!

IDAZKARIA: (AD LIB) Falta nuena! Amona umetzea!

NARRATZAILEA: (OFF) Idazkaria kezkatu egin zen: zer ote zuen enperadoreak? Eta nor egingo zuen lan guztia? Enperadoreak oso gaizki egon behar zen dena pikutara bidaltzeko. Beraz, idazkariak laguntzea erabaki zuen.

NARRATZAILEA: (OFF) Enperadoreak ez zuen aspalditik deskantsurik izan ezta paisaiaz gozatzeko aukerarik ere, eta zorte ona izan zuen: hura bai egun ederra! ... Idazkariak legeak izenpetzen hasi zen enperadoreari lana errazteko. Ez zekien nola egiten zen, baina enperadoreak egiten zuena gogoratu eta berak bezala egin zuen.

NARRATZAILEA: (OFF) Udaberria zen. Enperadoreak itzal bat bilatu zuen deskantsatzeko eta mahatsa jateko.

ENPERADOREA: (AD LIB) Hara! Mahatsak al dira horiek? (AD LIB) Dastatu egingo ditut! (AD LIB) Mm, bai gozoak!

IDAZKARIA: (AD LIB) Ederki dakit enperadorearen sinadura egiten, eta horixe egingo dut. (AD LIB)

ENPERADOREA: (AD LIB/KANTARI) La-lara-lara... Bai leku polita! Hemen eseriko naiz. (AD LIB) ... Mm, hauek mahats gozoak hauek! (AD LIB) Hemen ezin hobeto! ... (AD LIB) ... Mm, bazen garaia arnasa lasai hartzeko! Egunero lanpetuta naukate, legeak eta zigorrak-eta izenpetzen beti! ... Uf! Nazkatuta nago egun osoan jauregi-zuloan sartuta!

NARRATZAILEA: (OFF) Halako batean, txori bat zuhaitzean jarri eta abesten hasi zen. Oso kantua alaia zen.

URRETXINDORRA: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Jauregian, bitartean, idazkaria jo eta ke zebilen lanean, harik eta enperadoreak nahikoa deskantsatua egon arte.

IDAZKARIA: (AD LIB) Ez da horren zaila ba! Nire lana gogorragoa da! Hau edonork egin dezake! Nekazaria balitz, jakingo luke horrek zer den bizimodu latza! (AD LIB) Ez naiz ni makala ba enperadorearena egiten! Baina, tira,... haren bila joango naiz. Bestela ez da itzuliko. (AD LIB)

ENPERADOREA: (AD LIB) Hau bakea! ... (AD LIB) ...

URRETXINDORRA: (OFF) (AD LIB)

ENPERADOREA: Mm? Baina zer...? (AD LIB)

URRETXINDORRA: (AD LIB) ...

ENPERADOREA: Kaixo!

URRETXINDORRA: ... (AD LIB) ...

ENPERADOREA: Hara! Oso ondo abesten duzu!. Non ikasi duzu? ... Tira, tira, ez haserretu. Ni isildu egingo naiz.

URRETXINDORRA: (AD LIB) ...

NARRATZAILEA: (OFF) Idazkaria basora heldu zen eta enperadorea txori batekin dantzatzen

aurkitu zuen! Enperadorea burutik jota zegoela iruditu zitzaion! Hura ez zen normala!

Enperadoreak ez zion jaramonik egiten, txoriaren kantak liluratuta baitzeukan.

IDAZKARIA: Maiestate!

ENPERADOREA: (AD LIB/KANTARI)

IDAZKARIA: Maiestate,... jauregira itzuli behar du lehenbailehen.

ENPERADOREA: (AD LIB/KANTARI) Ixo! (AD LIB/KANTARI)

IDAZKARIA: Denbora luzea eman du kanpoan. Eta laster ministroak etorriko dira berorren maiestatearekin hitz egitera. (AD LIB) ...

URRETXINDORRA: (AD LIB)

IDAZKARIA: Goazen. Arren eskatzen diot.

ENPERADOREA: (AD LIB) Isiltzeko esan dizut! Eta hara! Zure erruagatik isildu egin da! Eta hain nuen gogoko!

ENPERADOREA: (AD LIB) Jarraitu, polit horrek! Abestu guretzat! Beste pixka batean arren!

URRETXINDORRA: (AD LIB) ...

ENPERADOREA: O! Ez al da ederra?

IDAZKARIA: Bai, maiestate,... baina...

URRETXINDORRA: ... (AD LIB)

IDAZKARIA: Maiestate, ez dut kantua eten nahi, baina berorrek jauregira itzuli beharko du, lana zain du eta.

URRETXINDORRA: (AD LIB)

IDAZKARIA: (OFF) Aditu du berorren maiestateak?

ENPERADOREA: (AD LIB) Tira, konforme, banoa. Zer egingo diogu ba?

IDAZKARIA: Ederki, jauna. (AD LIB)

ENPERADOREA: Aizu, txoritxo: ... inoiz entzun dudan soinurik ederrena egiten duzu. Orain, barkatuko didazu, baina lanera joan behar dut. Bihar itzuliko naiz berriro ere zure kantua entzutera.

NARRATZAILEA: (OFF) Enperadoreak txoriari mahats ale bat eman... eta alde egin zuen idazkariarekin. / Biok elkarri errieta eginez zihoazen. Idazkaria kezkatuta zegoen, bilera garrantzitsua baitzuten ministroekin!

IDAZKARIA: Goazen, maiestate. Goazen azkar.

ENPERADOREA: (AD LIB) Zertarako horrenbeste presa ba?

NARRATZAILEA: (OFF) Txio batek haren arreta erakarri zuen. Txoria zen.

URRETXINDORRA: (AD LIB)

ENPERADOREA: (OFF) E? (ON) Zer? Nirekin zatoz ala?

URRETXINDORRA: (AD LIB)

ENPERADOREA: A zer ondo.

URRETXINDORRA: (AD LIB)

ENPERADOREA: (AD LIB/BARRE)

NARRATZAILEA: (OFF) Handik aurrera adiskide izango ziren luzaroan eta enperadorearen bizitza betirako aldatu zen.

URRETXINDORRA: (AD LIB) ...

ENPERADOREA: Ekarri euskarri bat eta fruituren batzuk.

IDAZKARIA: Bai, maiestate. Berehala.

ENPERADOREA: Zerbait jan nahi duzu, polit horrek? (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Enperadoreak bilera luzea egin behar zuen ministroekin. Nazkatuta zegoen bilera horiekin! Irrikan zegoen lagun berriarekin berriro elkartzeko!

IDAZKARIA: Maiestate, esango al diet ministroei sartzeko?

URRETXINDORRA: (AD LIB)

ENPERADOREA: Bai ba. Esaiezu sartzeko. ... Ea zer nahi duten oraingoan tipo astun aspergarri horiek. ... Zuk kantatu. Kantatu, lagun.

URRETXINDORRA: (AD LIB)

IDAZKARIA: (AD LIB) Berorren maiestatea. Hemen dira ministroak.

MINISTROA A: (AD LIB) Arratsalde on, maiestate. (AD LIB)

MINISTROA B: (AD LIB) Arratsalde on, jauna. (AD LIB) Jainkoek urte askotan gorde dezatela.

ENPERADOREA: (AD LIB) Arratsalde on.

URRETXINDORRA: (AD LIB)

ENPERADOREA: Gogoko al duzue nire urretxindorra?

MINISTROA A: Bai, bai horixe! Ederra da gero. Eta ederki kantatzen du.

MINISTRO B: Ez dut kantu ederragorik entzun.

MINISTROA A: Harrigarria,... benetan... berorren maiestatea. Miragarria. ... Baina hobeto egongo da kanpoan lanean gauden bitartean, ezta?

ENPERADOREA: (AD LIB) Ez, ez, ez. Nirekin nahi dut.

NARRATZAILEA: Eta, handik aurrera, enperadoreak lan egiten zuen bitartean, urretxindorrak berarentzat kantatzen zuen, Enperadorea oso gustura zegoen. ... Zorionsua izatea lortu zuen azkenean! ... Baina egun batean...

MINISTROA A: Ai! ... Txori honek dena zikintzen du. ...

MINISTROA B: Egia da, bai.

MINISTROA A: ... Dena lumaz beteta dago. Eta noizbehinka paperak ere nahastu egiten ditu hegan egiten duenean! (AD LIB)

MINISTRO B: Urrezkoa egin dezakegu haren orde.

IDAZKARIA: Ez dakit ba. Enperadoreak izugarri maite du. ...

MINISTROA A: Hori bai, baina...

IDAZKARIA: ... Nik ez dut uste batere ideia ona denik.

MINISTROA B: Bitxigilerik onenari egingo diogu enkargua, eta txundituta geratuko da.

IDAZKARIA: (AD LIB)

MINISTROA A: (AD LIB/BARRE) Ondo esan duzu. Bai horixe. ... Bitxigileak urretxindor ikaragarri dotorea egingo dio! Enperadore batek merezi duena! (AD LIB)

MINISTROA B: (OFF) Hala egingo dugu.

IDAZKARIA: (OFF) (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Eta hala egin zuten. Bitxigileari enkargua egin eta, urrezko urretxindorra amaituta zegoenean, enperadoreari eraman zioten opari.

IDAZKARIA\MINISTROA A\MINISTROA B: Egunon, jauna. (AD LIB)

ENPERADOREA: (OFF) Egunon. Zertan zatozte honen goiz?

MINISTROA A: Maiestate, opari bat dakarkiogu. Itxi begiak!

MINISTROA B: Bai, itxi begiak, honela!

IDAZKARIA: Ai, ai, ama...

ENPERADOREA: Opari bat? Eta zer da?

MINISTROA B: Berehala jakingo du. Itxi begiak.

MINISTROA A: (AD LIB/BARRE)

NARRATZAILEA: (OFF) Bai ondo! Berak sorpresak gustukoak zituenez, begiak itxi zituen, baina bat-batean soinu zatar bat entzuten hasi zen: txori mekaniko bat zen! Enperadoreak susmo txarrak hartu zion: zer gertatu ote zitzaion bere txoriari? Non zen?

ENPERADOREA: (AD LIB) Zer? Zabal ditzaket? (AD LIB)

TXORIA: (AD LIB) ...

MINISTROA B: (OFF) Begira, jauna! Ez al du gogoko?

ENPERADOREA: (OFF) (AD LIB) (ON) Baina zer da hau? Zer gertatu zaio nire urretxindorrari? Non da?

MINISTROA A: E-e-e-ezer ez. Ez zaio ezer gertatu! Zera baino ez da... beste bat ekarri diogula? (AD LIB)

MINISTROA B: (AD LIB) Ai, ez zaio gustatu!

NARRATZAILEA: (OFF) Enperadorea lagunaren bila joan zen. Normalean bulegoan izaten zen, baina arrastorik ez! Izututa zegoen! Zer bururatu ote zitzaien ministroei? Txoria maite zuen, ezin zuen bera gabe bizi! Aurkitu behar zuen baina alferrik! Ministroek txoria betirako uxatu zuten, ondo uxatu ere! Enperadorea oso haserre zegoen!

ENPERADOREA: Non sartu ote da baina? Entzun ere ez dut egiten! Non ibiliko ote da? Errukarria! Kantatu, kantatu niretzat! (AD LIB) Beharbada hemen paper artean... ai, ez, hau pena! Zer egingo dut nik haren kanturik entzun gabe? Ai, errege gizagaixoa! (AD LIB) Ez dago ni baino gizaki tristeagorik munduan! Urretxindorra! Itzuli nirekin! Non zaude? (AD LIB)

MINISTROA A: Enperadore handi batentzat... egokiagoa irudituko zaigu urrezko txoria. ...

MINISTROA B\IDAZKARIA: (AD LIB) Bai, bai horixe.

Hala da, bai.

MINISTROA A: ... Eta... horregatik oparitu diogu. (AD LIB)

MINISTROA B: (OFF) Ederra da benetan. Ez al du gogoko?

IDAZKARIA: Nik e...

ENPERADOREA: Eta bestea?

IDAZKARIA: Ai, bestea...

ENPERADOREA: (AD LIB) Zer? Non dago?

MINISTROA B: Bota egin dugu. Baina begira, maiestate. Begira zein gauza polita.

MINISTROA A: Jauregi bikain honetan ezin genuen halakorik onartu.

ENPERADOREA: (AD LIB) Ai,... ai ene urretxindorra.

MINISTROA A: Maiestate, onartu gure oparia.

MINISTROA B: Bihotz-bihotzez eskaintzen diogu. Berorrentzat da.

MINISTROA A: (AD LIB)

IDAZKARIA: (OFF) Horren kantuak ere egunak alaituko dizkio.

ENPERADOREA: (AD LIB) Eskerrik asko. Baina ni oso pozik nengoen bestearekin! (AD LIB) ...

MINISTROA A: Baina ez dago ukatzerik hau askoz ere dotoreagoa dela.

MINISTROA B: Enperadorearentzat egokiagoa, bai. Begira zein bitxi ederrak.

MINISTROA A: Gainera, kantatzen ere badaki. Entzun, entzun.

ENPERADOREA: (AD LIB) ...

TXORIA: (AD LIB) ...

NARRATZAILEA: (OFF) Harrigarria bazen ere, ministro tonto haiek txori mekanikoa benetakoarekin konparatzen ausartzen ziren! Nola izan zitekeen? Ez ziren konturatzen txori mekanikoak zarata baino ez zuela egiten?! Gainera, urretxindorra, soinu ederra egiteaz gain, laguna zuen.

TXORIA: (AD LIB) ...

ENPERADOREA: (AD LIB) Ai, soinu hau! Ez dakit ba... (AD LIB) ...

NARRATZAILEA: Enperadoreak lan egiten jarraitu zuen, baina benetako urretxindorraren soinu ederra falta zuen.

TXORIA: ... (AD LIB) ...

NARRATZAILEA: Erregea gero eta apalago zegoen,... triste eta goibel. Ministroak eta idazkaria, beraz, kezkatzen hasiak ziren.

ENPERADOREA: ... (AD LIB)

IDAZKARIA: (AD LIB) Gero eta goibelago ikusten dut. ... Ez dago, ez, bere onean. (AD LIB) Ez dakit... ez dakit ba...

MINISTROA A: Urretxindorrak jotzen al du?

IDAZKARIA: Bai, baina berak ez du gogoko. ... Oso polita da, bai. Baina ez da gauza bera.

MINISTROA B: (AD LIB) ...

MINISTROA A: Eta zer egin dezakegu?

IDAZKARIA: (OFF) Ez dakit, baina ez dago honela jarraitzerik.

MINISTROA B: Horiek tontokeriak dira! Sar zaitez eta piztu oraintxe bertan urrezko urretxindorra! Arin! ... Eta ez dadila egun osoan isildu!

NARRATZAILEA: Idazkariak ministroak esandakoa egin zuen eta, (OFF) kantua isildu ez zedin, uneoro sartzen zen enperadorearen gelan gezurrezko txoriari eragiteko. Enperadore gizagaixoak aste batzuetan jasan izan behar zuen txori mekanikoaren zarata. Ministroek zergatik behartzen zuten hori jasaten? Enperadoreak arazoa, nola edo hala, konpontzea erabaki zuen.

TXORIA: (AD LIB) ...

ENPERADOREA: (AD LIB) Ai, zarata gogaikarri hau! (AD LIB) ... IDAZKARIA: (AD LIB)

ENPERADOREA: (AD LIB) Ezin dut gehiago! Nazkatuta nauka! (AD LIB)

TXORIA: ... (AD LIB)

ENPERADOREA: ... (AD LIB) Nahikoa da, nahikoa! (OFF) Zureak egin du, infernuko makina!

NARRATZAILEA: Txikiturik geratu zen... urrezko urretxindorra, eta betiko isildu zen. (AD LIB)

ENPERADOREA: (AD LIB)

IDAZKARIA: (AD LIB) Ene! Apurtu egin da! Orain zer egingo dugu? (AD LIB)

ENPERADOREA: Ezer ez. Oraindik ez zara konturatu ez nuela batere gustuko? Ai, idazkaria!

IDAZKARIA: Benetako nahiago zuen, ezta?

ENPERADOREA: Bai, non ote da?

IDAZKARIA: Ez dakit. Auskalo!

ENPERADOREA: (AD LIB) Ez dakit zer emango nukeen berriro entzuteagatik.

NARRATZAILEA: Egunak joan, egunak etorri, enperadoreak lanean jarraitzen zuen, baina bere baitan urretxindorra zuen beti gogoan. ... (OFF) Enperadoreak hasperenka ematen zituen egunak, txoriarekin oroitzen baitzen. ... Urretxindorraren soinua beharrezkoa zuen lana egiten jarraitu ahal izateko.

ENPERADOREA: (AD LIB) ... [Non ibiliko ote da nire urretxindor ederra? (AD LIB)

Haren kantua behar dut.] (AD LIB) ... Txikitxo, non

zaude? Itzuli niregana! (AD LIB)

NARRATZAILEA: Enperadorea malenkoniak jota zegoen, harik eta erabat gaixotu arte.

ENPERADOREA: (OFF) (AD LIB) (ON) (AD LIB) ...

IDAZKARIA: (AD LIB) Zer du berorren maiestateak? Gutiz kezkatuta gauzka.

ENPERADOREA: ... (AD LIB) ...

NARRATZAILEA: Goiz batean ez zen jadanik ohetik jaiki, eta...

IDAZKARIA: Gure errege maitea oso gaixorik dago. Ezin da ohetik altxatu. Zer egingo ote diogu?

MINISTROA A\MINISTROA B: (AD LIB)

MINISTROA A: Bai. Zerbait egin beharra dago.

MINISTROA B: Ene! Errukarria! ... Baina zer gertatzen zaio?

IDAZKARIA: Nire ustez urretxindorraren faltak goibeldu egin du.

MINISTROA B: (OFF) (AD LIB)

MINISTROA A: Tira ba, haren bila joan beharko dugu.

IDAZKARIA: Bai horixe. Ondo esan duzu.

MINISTROA B: Bai. Jar gaitezen lanean.

NARRATZAILEA: Ministroek eta idazkariak txoria bilatu eta aurkitu ere aurkitu egin zuten.

IDAZKARIA\MINISTROA A\MINISTROA B: (AD LIB) ...

Zatoz, txoritxo! Zatoz gurekin!

Zatoz polit hori!

Tira, zatoz hona, enperadorea zain duzu eta.

(AD LIB) ...

MINISTROA A: Zer da gehien gustatzen zaiona?

IDAZKARIA: Nik dakidala, masustak oso gogoko ditu. (AD LIB)

MINISTROA B: (OFF) Horiexek emango dizkiogu ba.

MINISTROA A: Tira ba, emazkiozu. (AD LIB)

IDAZKARIA: (OFF) Tori. ... Ez duzu nahi, ala?

MINISTROA A: (OFF) Ez al zituen masustak gogoko?

IDAZKARIA: Nik uste dut ez duela ezer nahi gurekin. ... Dirudienez, oso haserre dago.

MINISTROA B: (OFF) A zer pena! Eta zer egingo dugu?

MINISTROA A: Zera- e... barkaiguzu, txori polit horrek. ... Oso gaizki jokatu dugu zurekin.

Ai, hemendik aurrera, etorri lasai nahi duzunean jauregira, gure enperadore maitearentzat...

abestera. ... Entzun duzu?

URRETXINDORRA: (AD LIB) ...

NARRATZAILEA: (OFF) Enperadorea gaixorik zegoen, ohetik altxatu ezinik. Izugarri triste, ezerk ere alaitzen ez zuela. Bat batean soinu alai eta ezaguna sumatu zuen.

URRETXINDORRA: (OFF) (AD LIB) ...

ENPERADOREA: E? E? ... (AD LIB) Soinu hori...?! ... E? Ez da egia. ... Ezin liteke!

URRETXINDORRA: ... (OFF) (AD LIB)

URRETXINDORRA: (AD LIB) ...

ENPERADOREA: Ez dakizu zenbat sentitu dudan zure falta! ... Betiko geratuko al zara?

IDAZKARIA: Bai, txoritxo. Esan baietz.

URRETXINDORRA: ... (AD LIB)

ENPERADOREA: (OFF) Ez? Nola ezetz? (OFF) Oo... / Beno ba, nahi duzun arte gera zaitezke. (AD LIB)

URRETXINDORRA: (AD LIB)

IDAZKARIA: (AD LIB) ...

NARRATZAILEA: (OFF) Idazkaria lasaitu egin zen, azkenik enperadorearen tristura desagertu eta ohiko bizitza egiten hasi zen, poz-pozik.

ENPERADOREA: Ai, bai kantu polita! Hauxe da falta nuena! (OFF) (AD LIB/BARRE)

IDAZKARIA: (AD LIB) Eskerrak konpondu dugun! (BARRE)

NARRATZAILEA: Eta horrela moldatu ziren. Urretxindorra ia egunero joaten zen jauregira, enperadore lagunaren egunak alaitzera eta, aspertzen zenean, alde egiten zuen. // Hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan. Eta irten dadila Durangoko plazan.

## BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

[www.Zernola.net](http://www.Zernola.net): Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

**EGILEAK**

**GOIATZ  
MULTIMEDIA, S.L.**

**PRODUKTOREA:**  
Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA  
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**  
Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN  
EUSKARAKO ARDURADUNA:**  
Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA  
ERREALIZAZIOA:**  
Mikel Val

**SOINU BANDA:**  
Inhar Val

**EDIZIOA:**  
Goiatz Multimedia, S.L.

**TXOTXONGILOAK:**

Goiatz Multimedia, S.L.

**DEKORATUAK:**

Sara García

**TXOTXONGIOLARIAK:**

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M<sup>a</sup> Rodríguez

**K 2 0 0 0 S . A .**

**Produktore exekutiboa:**

Tomas Ugalde

**Euskarako arduraduna:**

Josu Varela

**Bikoizketako zuzendaria:**

Alvaro Sánchez

**Sarrerako kanta:**

Ana Tere Bengoetxea

**Ahotsak:**

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

**Audioko teknikariak:**

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

**Nahasketak:**

Gorka Lara

Juan C. Cantera

**Produkzioko laguntzailea:**

Ana Urresti

**Koordinatzailea:**

Jon Arce

# **EIMA 2000**

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailaren egokitasun-aitormena du:  
2004-06-25**

**LEGE GORDAILUA: : SS-1590/03**

**L.C. PRODUKTOREA  
tel.: 945-230715**